



## EREMU EZ-CURRICULARRAREN GARRANTZIA EUSKARAREN ERABILERAN

**Helena Baraibar, Kristina Boan**

*Ikastolen Elkarteko Gipuzkoako Euskaraz Bizi egitasmoan koordinatzaileak*

Helbide elektronikoa: [kboan@ehik.ikastola.net](mailto:kboan@ehik.ikastola.net)

### SARRERAKO IDEIAK

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza finkatzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, baina, Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean goraka egin arren, oraindik asko falta da egoera normalizatzeko. Halaber, Lanbide Heziketan euskararen egoera guztiz kezagarria da eta honen eragina erabakigarria da lan munduan euskara normalizatzeko egin beharreko urratsei begira. Nafarroan eta Iparraldean euskarazko irakaskuntzaren egoera EAEko baina kezagarriagoa da. Beraz, hezkuntzan jarraitu beharko da euskara eta euskarazko irakaskuntza sendotzen, ikasle guztiek, etxetik euskaldun zein erdaldun direnek, euskara, hitzez eta idatziz, ondo mendera dezaten etorkizunari begira, bada, ildo estrategiko (Gunea, 2000; Kontseilua, 2000) hauek nabarmentzen ditugu:

- Euskararen ofizialtasun juridiko legala lortzea Nafarroan zein Iparraldean.
- Iparraldean euskarazko hezkuntza sisteman erabateko babes juridiko legala izatea.

- Nafarroako eskualde orotan euskarazko hezkuntzak babes juridiko legala izan dezala lortzea.
- Dagoeneko euskara ofiziala den euskal lurraldeetan euskarazko eskaintza erabatekoa ziurtatzea, ikasmaita eta jakintza gai guztietan. Batez ere garrantzi handikoa izango da, euskarazko irakaskuntza goi mailako ikasketetan, hau da, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean hedatzea.
- Euskara ofiziala lortzekotan den euskal lurraldeetan euskarazko eskaintza erabatekoa ziurtatzea haur eta lehen hezkuntzan lehen epean, eta epe luzeagoko plana egin ondorengo ikas mailetarako.

Euskararen normalizazioa lortu nahi bada, plangintza integrala (plan estrategikoa) indarrean jarriz lortuko da eta ez ekintza bakartuen bidez. Plan estrategikoa honetan, irakaskuntza euskara ondorengoetartazeari dagokion multzoan kokatzen da. Hori da irakaskuntzaren funtzio nagusia hain zuzen: belaunaldi berriei euskara ona eta ongi erakustea. Hala ere, irakaskuntzaren funtzioa, adibidez, ezin da mugatu euskara irakastera. Izan ere, irakaskuntzaren eta eskolaren betebeharrak ere bada euskararen erabilerari eragitea, bidenabar, euskararen elikaduran eraginez. Gauzak horrela, **ezinbestekoa da eskola eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea.** (Ikastolen Elkarteak: *Ikastolen hizkuntz proiektua definitzeko oinarriak*, 2000)

## ERAGIN EREMUAK

Ikuspegi honen harira, eta tokian tokiko egoeretara makurtuta ahalegin handia egin izan dute eta horretan darraite Euskal Herriko -Hegoaldeko nahiz Iparraldeko- ikastolek. Urte askotan, gure ikastoletan, pentsatu izan dugu euskara irakatsiz gero eta ikasleek ikasiz gero, hots, eremu pedagogiko curricularrean lan eginez gero, lortuko genuela ikasleria euskalduntzea, eta gizartearen euskalduntzean ere eragitea. Pentsaera honek, ondorioz, eraman gintuen esparru ez-curricularren garrantzia gutxiestera. Baina denborak aurrera egin ahala, uste hau ere, zahartu bezain antzua gertatu da.

Ikastolon xedea, besteak beste, gizartearen eragitea izan da, euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea, ikasleen euskararen ezagutza ez ezik erabilpena ere bermatzea. Ikasleentzat euskara eskola-hizkuntzaz gain, bizitza-hizkuntza izan dadin ahalegindu gara. Baina hau nekez egin daiteke gela barruan landu beharrekoari begira bagaude soilik. Gauzak horrela, askotariko errealitateetatik datozen ikasleak euskal hiztun eleaniztun bilakatzeko eta euskara balia dezaten ahalik aukera gehien emateko ahaleginean, ezinbestekoa izan da eremu ez-curricularren dagokion garrantzia aitortzea kudeaketa planetan eta normalkuntza plangintzetan. Euskaldunon etorkizuna eleanitza den

---

**Euskararen normalizazioa lortu nahi bada, plangintza integrala (plan estrategikoa) indarrean jarriz lortuko da eta ez ekintza bakartuen bidez. Plan estrategikoa honetan, irakaskuntza euskara ondorengoetartazeari dagokion multzoan kokatzen da. Hori da irakaskuntzaren funtzio nagusia hain zuzen: belaunaldi berriei euskara ona eta ongi erakustea. Hala ere, irakaskuntzaren funtzioa, adibidez, ezin da mugatu euskara irakastera. Izan ere, irakaskuntzaren eta eskolaren betebeharrak ere bada euskararen erabilerari eragitea, bidenabar, euskararen elikaduran eraginez. Gauzak horrela, ezinbestekoa da eskola eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea.** (Ikastolen Elkarteak: *Ikastolen hizkuntz proiektua definitzeko oinarriak*, 2000)

honetan, euskarak iraun ahal izateko, nagusi izan behar du bere hizkuntza eremuan, baina honekin batera, euskaldunok beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dugu. Aurrerantzean euskara arriskuan egon ez dadin, helburua bi aldeak uztartzea izan behar du: batetik, euskarak garapen osoa lortzea eta, bestetik, beste hizkuntzekin zenbait alderdi partekatzea.

Euskararen garapen osoa lortu ahal izateko, ikastolako inguruan dauden eragin esparruak zein diren ezagutu eta horietan eragitea bilatu beharra dago.

PEDAGOGIKOA	DIDAKTIKOA			FAMILIA	OROKORREAN
<p><b>Kurrikulu proiektua :</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntz arloko curriculum integratua.</li> <li>Beste arloetako curriculumak: hizkuntzen trataera instrumentala, globalizazioa, ea.</li> </ol> <p><b>Egitasmo osagarriak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Euskara eta euskal kultura.</li> <li>Zeharlerroak.</li> </ol> <p><b>Irakasleen prestakuntza planak:</b> hizkuntz hobekuntza, metodologia, ea.</p>	<p><b>Harremanak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>?? Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza.</li> <li>?? Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzekiko jarrera.</li> <li>?? Irakasle/ikasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> <li>?? Irakasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ul> <p><b>Baliabideak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Gelaren girotza: hormirudiak, kartelak, ea.</li> <li>Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza.</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>?? Jolasaldiak.</li> <li>?? Jantokia, garraioa, zerbitzuak, e.a.</li> <li>?? Eskolaz kanpoko ekintzak.</li> <li>?? Irakasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> <li>?? Gainontzeko gizabaliabideen hizkuntza.</li> <li>?? Irakasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Gobernu eta funtzionamendu organoak.</li> <li>Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa.</li> <li>Personalararen hizkuntz profilak.</li> <li>Espazioen banaketa eta trataera.</li> <li>Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen taulak, etab.).</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxearen eta gurasoen arteko harremanak, irakaslea, ikastetxea, etab.</li> <li>Familia barruko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Beste ikastetxeekin harremanak.</li> <li>Herriko beste talde eta erakundeekin harremanak.</li> <li>Administrazioarekin harremanak.</li> <li>Bestelako harremanak.</li> </ol>

Elkarren osagarri diren bi eragin esparru nagusi bereizten dira. Batetik, **eremu pedagogikoa**, hizkuntza jarduera formalaren esparrua eta ez-formalaren baratzea, jardun pedagogikoarekin, gela barruko dinamikarekin loturiko hizkuntzaren alderdiak biltzen dituena, zein gelaz kanpoko harreman libreetako esparruak biltzen dituena baita. Eta bestetik, **eremu instituzionala**, ikastetxearen kudeaketa eta antolaketa biltzen dituena eta baita gelaz kanpoko esparruaren antolaketa ardura nagusia ere. Baina eremu pedagogiko ez-curricular hau ez da eta ez du izan behar, gure ustez, ikastolaren jardunean uharte isolatu soila. Eskola-bizitzako errealitate instituzional, pedagogiko-curricularra eta pedagogiko ez-curricularra bereizteak, ez gaitu eraman behar hiru eremuak gordinki etetera. Eremu instituzionalean hartzen diren erabakiek eremu pedagogiko osoa edukiz eta baliabidez beteko dute. Eta eremu pedagogikoko bi azpi eremuek elkar osatuko dute. Eremu pedagogikoari buruz gaineratu, besteak beste, inplikatzeko dituen esparru bien arteko desberdintasunak agerikoak badira ere, elkarren arteko loturak ere nabariak eta beharrezkoak dire-

la. Bietan egingo den hizkuntza lanketaren eta erabileraren emaitza izango baita arestian helburutzat jarri dugun HIZTUN OSOa lortzeko eta euskararen garapen osorako bidea.

## **NOLA ELIKATU ERABILERA EREMU EZ-KURRIKULARREAN?**

Orain artean, hainbat ikerketak erakutsi digu gure gaztetxoek lehentasuna ez dela euskara erabiltzea gelaz kanpoko ekintzetan. Nahikoa da ume, gazte zein nerabeen euskararen erabilera neurtzen hastea konturatzeko jokabide arras diferenteak erakusten dituztela heldua, autoritatea, aurrean dagoenean edota presente ez dagoenean. Baina badira osterantzeko faktoreak ere. Esan gabe doa adina dela indartsuenetakoa. Ikasleek adinean gora egin ahala, eskolatik kanpoko harreman sareek geroz eta indar handiagoa izango dute. Baina zein dira euskaraz ez aritzeko bestelako arrazoiak? Batzuk etortzen zaizkigu burura. Izan ere, lurraldetasunaren arabera horiek ere ugaritzen dira. Hona hemen horietako batzuk: batetik, gizarteak berak euskara modan jartzeko ahaleginik ez egitea. Gure ikasleak gizartean bizi dutenaren isla dira, eta inguruan euskararen presentzia eskasa bada, nekez egingo dute gure ume eta gaztetxoek euskaraz. Honekin lotuta, gure ikasleek euskarari akademikoa den balioa baino ez aitortzea. Ez diote euskarari bizitasunik topatzen eta ondorioz, ez dute hizkuntzarekin jolastea lortzen, beraz, euskarak ez die jolasteko balio. Bestetik, eskolak berak aukera gutxi eskaintzea euskaraz komunikatu ahal izateko. Gela barruan metodologia komunikatiborik hobesten ez bada, eta gainera, eskolak berak saiakera gutxi egiten badu gelaz kanpoko eskaintza orokor, arrakastatsu eta motibagarria euskaraz ziurtatzeko ez dugu euskarari atxikitzea lortuko. Bestalde, gure ikasleen hizkuntza erreperitorioa formalegia gertatzea lagunartean aritzeko. Nolabait esan liteke egoera informaletarako euskarazko erregistro kolokialik ez dutela ezagutzen edota gaztelaniatik hartzeko joera dutela.

**Gure ikasleak HIZTUN OSO edota euskal hiztun aktibo izan daitezten, ezinbestekoa da, arlo akademikoaz gain eta harekin lotuta, ikaslearen beste bizitza esparruak ere aintzakotzat hartzea eta hauetan ere eragitea.**

Zer egin dezake, bada, ikastolak erabilera elikatzeko?

1. Lehenik, hausnartu eta adostu beharko dira zein diren hizpide dugun esparru honek berezkoak dituen ezaugarriak, eremu curricularrak eskaintzen ez dizkigun aukera gisa formulatuak:

- a. Esparru egituratua eta antolatua da. Ordutegi jakin bati loturikoa eta iraupen zehatza duena. Jarduera pedagogikoari dago-kiona eta gidatua.

---

*Urte askotan, gure ikastoletan, pentsatu izan dugu euskara irakatsiz gero eta ikasleek ikasiz gero, hots, eremu pedagogiko curricularran lan eginez gero, lortuko genuela ikasleria euskalduntzea, eta gizartearen euskalduntzean ere eragitea. Pentsaera honek, ondorioz, eraman gintuen esparru ez-curricularraren garrantzia gutxiestera. Baina denborak aurrera egin ahala, uste hau ere, zahartu bezain antzua gertatu da.*

**Gure ikasleak gizartean bizi dutenaren isla dira, eta inguruan euskararen presentzia eskasa bada, nekez egingo dute gure ume eta gaztetxoek euskaraz. Honekin lotuta, gure ikasleek euskarari akademikoa den balioa baino ez aitortzea. Ez diote euskarari bizitasunik topatzen eta ondorioz, ez dute hizkuntzarekin jolastea lortzen, beraz, euskarak ez die jolasteko balio. Bestetik, eskolak berak aukera gutxi eskaintzea euskaraz komunikatu ahal izateko. Gela barruan metodologia komunikatiborik hobesten ez bada, eta gainera, eskolak berak saiakera gutxi egiten badu gelaz kanpoko eskaintza orokor, arrakastatsu eta motibagarria euskaraz ziurtatzeko ez dugu euskarari atxikitzea lortuko. Bestalde, gure ikasleen hizkuntza errepertorioa formalegia gertatzea lagunartean aritzeko. Nolabait esan liteke egoera informaletarako euskarazko erregistro kolokialik ez dutela ezagutzen edota gaztelaniatik hartzeko joera dutela.**

b. Jarduera ludikoak dira burutzen direnak, ikasleek hautatutakoak. Ikasleen gustuko ekintzak bideratzen dira. Motibagarriak dira ekintzak. Hizkera errepertorio jakinak erabiltzen dira, jarduerari hertsiki loturik daudenak.

c. Harremanak libreagoak dira eta lagunarteko hizkuntza nagusitzen da hauetan. Hizkuntzaren alderdirik adierazkorrenak erabiltzeko aukera ematen du esparru honek. Bertan ematen diren komunikazio egoerak informalak eta familiarrak izan ohi dira. Honenbestez, eremuari dagokion euskarazko erregistroa kolokiala izango da. Gazteei hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela sinestarazi ez ezik erakutsi ere egin behar zaie. Baina horren lanketa egitea ez dagokio gela barruan ari den irakasleari, ez da jardunbide curricularra. Eremu ez-formaletan eragile direnen zeregina da ikasleekin erregistro hori lantzea. Harreman sare berriak sortzeko aukera handia dago beraz. Zenbat eta gehiagok erabili euskara norberaren harreman sarean (bakoitzaren lagunartean,...), orduan eta handiagoa izango da euskararen erabilera. Eta euskaldunen dentsitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta bizitasun gehiago izango du euskarak, ikaslearen ikastolako bizitza esparruak ere euskaraz gauzatzeko aukera gehiago ahalbidetuz.

d. Esparru honetan behar bezalako inbertsioa eginez (hizkuntzaren ikuspegitik kualitatiboa litzatekeena), kuantitatiboki hitzuna irabaz litezke eta beste esparru batzuetara zabaldu euskara erabiltzeko joera (lagunartera, etab.)

2. Ondoren, lan iraunkor, kohesionatu zein sistematizatua ahalbidetuko duen egituraketa finkatu behar da. Ingurunabar honetan, eskolan hizkuntzekiko egon litezkeen esku-hartze eremuak kontuan izanik, bakoitzean eragile d(ir)ena(k) edota bilaka lite(z)keena(k) ongi identifikatu eta lehenetsi behar dira plangintza eraginkorra abian jarri ahal izateko. Euskararen biziraupena ez baita soilik euskara irakasleena, hezkuntza komunitate osoarena baizik.

3. Azkenik, euskararen erabilera soziala eragozten duten alderdiak identifikatu beharko dira eta zein esparrutako hutsuneak diren ezaugarazi. Gelaz kanpoko esparru sozial horietan eragiteko eta etenak gainditzeko estrategia proposamena egin beharko da. inplikaturako eragile guztiekin koordinatu eta erantzun koherentea bilduko duen plangintza egin. Ezin izan daitezke hausnarketarik gabeko estrategia puntualak xedea ez baita inondik ere, era isolatuan eta esparruen arteko elkarreragina kontuan hartu gabe, honelako edota halako jarduera bideratzea.

Ikus dezagun aipaturikoak kontuan hartu dituen EREMU EZ-CURRICULARen eragitea helburu duen interbentzio plan xume bat:

Batetik, **jolas garaia** hautatu dugu oso espazio interesgarria delako eta interbentzio plan osatuak egiteko aukera eskaintzen digulako.

EREMU INSTITUZIONALA	EREMU CURRICULARRA	EREMU EZ-CURRICULARRA
-------------------------	-----------------------	--------------------------

Jolasgaraia euskararen normalizazioaren ikuspegitik antolatzeak erabakia hartu.

Euskararen Normalizazioaren ikuspegitik, besteak beste, zainketa aktiboaren erantzukizunaz eta eginkizunaz gogoeta egin eta antolatu: jolas saio batzuk gidatuak eta beste batzuk libreak. Honenbestez, zaila izango da eremu curricular eta ez-curricularren arteko muga ezartzea. Arduradun bat izendatu, adinaren arabera eta antolatuko den jarduera kirol ekintza izango bada, tutoreak, gorputz heziketako irakasleak edota bigarren hezkuntzako ikasleak izan daitezke. Kidetze planak bideratu, ikasleen arteko elkarrekintza bultzatu. Alegia, LH 3. zikloko ikasleak eta bigarren hezkuntzakoak euskararen aldeko eragile bihurtzea da gakoa. Ikasle eragileak, gogoko duen ekintzaren batean murgilduta protagonista dela sentitu behar du. Hartzaile diren ikasleentzat eredugarri izan ohi dira eragile bihurtzen ditugun ikasle nagusiagoak eta ona da ikus dezaten hauek euskarari garrantzia eman ez ezik, euskara erabili ere egiten dutela. Zainketa aktiboa gauzatu gaiak eskatzen duen seriotasunez.

Jolastokian bezala, bestelako esparru ez-curricularretan ere gela barruan irakasleak erabiltzen duen metodologiak duen eraginaz hausnarketa egin eta erabakiak hartu. Metodologia komunikatiboaren ardatz eta ildo nagusiak partekatu.

Gela barruko jardunaren helburua hizkuntza erabiltzeko aukerak ematea behar luke nagusiki, gerora, ikasleek harreman libreetan hizkuntza hori bera erabili ahal izateko. Hizkuntzak erabiltzen diren neurrian barneratzen baitira. Ikasleen komunikazio konpetentzia garatzen dugun heinean, euren komunikazio beharretan euskararen hautua eroso egitea bermatuko baitugu. Ahantzi ezina du, halaber, eskolak gela barruan zein kanpoan, euskaraz jardun ahal izateko harreman-sareak eraikitzea eta sustatzea eta erabilera-eremuak irabaztea. Eremu curricularrean AHOZKOAREN LANKETARI ematen zaion garrantziak, nahiz eta formala izan landurikoa, islada izango du ikasleak bere gustuko eremuan bere bizipenak eta sentsazioak azaltzeko garaian. Zenbat eta ahozkoa, nola objektu bezala, zein interrelazio bezala, gehiago landu eta sustatu, orduan eta erazago egingo du ikasleak euskaraz eremu ez-formalean ere. Eremu curricularrean irakasle orok Euskaraz Bizik euskararen erabilera sustatzeko erabil ditzakeen estrategia berak erabiltzen badira eremu ez-curricularrean ere, ia oharkabean ikasleak eremu curricularra zein ez-curricularra errealtate bereko bi alde direla barneratuko du eta hori lagungarri gertatuko zaio bere hizkuntza portaeran ohikoa den sasi-banaketa ez egiteko.

Jolastokian zainketa aktiboa gauzatzearren beharraz gogoeta bultzatu.

Hautatutako arduradunaren eraginez, adinaren arabera curriculumak berak eskaintzen dituen jolasak hautatu eta bildumak osatu, sistematizatu. Curriculumak eskainiko ez balitu, beste iturrietan bilatu proposamen egokiak.

Baliabideak esleitu: -arduraduna -ordu liberazioak -espazio fisikoak

Jolas eta kirol mailako ohiko komunikazio egoerak lantzeko behar diren hiztegi tekniko, esamoldeak landu, testuinguru horretara egokitzen diren antzerki eta elkarrizketak erabiliz.

Begiraleen prestakuntzan, besteak beste, eduki hauek kontuan izan. Bestalde, arduradunari egokituko zaio begiraleen ardurez eta egin duten lanaren jarraipena egitea, ikasturte hasieraz gain, hiruhilero eurekin bilduz.

**Gazteei hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela sinestarazi ez ezik erakutsi ere egin behar zaie. Baina horren lanketa egitea ez dagokio gela barruan ari den irakasleari, ez da jardunbide curricularra. Eremu ez-formaletan eragile direnen zeregina da ikasleekin erregistro hori lantzea. Harreman sare berriak sortzeko aukera handia dago beraz. Zenbat eta gehiagok erabili euskara norberaren harreman sarean (bakoitzaren lagunartean,...), orduan eta handiagoa izango da euskararen erabilera.**

**LH 3. zikloko ikasleak eta bigarren hezkuntzakoak euskararen aldeko eragile bihurtzea da gakoa. Ikasle eragileak, gogoko duen ekintzaren batean murgilduta protagonista dela sentitu behar du. Hartzaille diren ikasleentzat eredugarri izan ohi dira eragile bihurtzen ditugun ikasle nagusiagoak eta ona da ikus dezaten hauek euskarari garrantzia eman ez ezik, euskara erabili ere egiten dutela.**

- Astean bi edo hiru egun izendatu, edota hilean behin, gela barruan ikasitako eta landutako jolas/joko eta kirolak praktikatzeko. Jolastokia guneetan banatu eta bakoitzean jolas bat gauzatuz, jolastokiko jolas-bizitza euskararekin identifikatzen saiatu.
- Ekintza horretarako, aurretik euskararen erabilera ziurtatuko duen arautegia prestatu: puntuazioa eman, ezinbesteko baldintza jarri...
- Txapelketa modura edo antolatu, hilean behin edo ekitaldi berezixeago bat antolatuz. Irakasleen kontra aritzeak arrakasta handia izan ohi du eta hizkuntzaren erabilera ia ziurtatuta dago.
- Antolakuntzarako bigarren hezkuntzako ikasleen euskara batzordera, bestelako klase naturaletara... jotzea komeni da.
- Jolas orduetan, orokorrean, euskara erabiltzearen aldeko mezuak zabaldu: tutoretza orduetan, pasabideetan, megafoniaz...
- Euskal musikarekin dantza/koreografiak egiteko aukera eman, eta ondoren emanaldiak egin (edo bideoz grabatu).
- Atsedenetan irratsaioak egin euskaraz.

<p>Eremu ez-curricularreko begirale beharrei erantzuteko baliabide ekonomikoak ziurtatu.</p>	<p>Jolas hauen inguruko komunikazio egoeretan usuen erabiltzen diren hitz eta esamoldeak identifikatu, lanketa egituratu eta eremu curricularrean txertatu.</p>	<p>Bitartekari guztiok euskararen aldeko erreferente garbiak izan, adostutako estrategiak erabili. Horrela, ikasle guztiak ohartarazi jolasgaraiak ikasgela bezalaxe, euskararen eremua dela.</p>
<p>Joko, jolas, animazio... eta antzerakoetako hizkuntza curriculumean txertatzeko erabakia hartu, eta auzi hori koordinatuko duen eta eginkizunak banatuko dituen arduraduna ezarri.</p>	<p>Joko/jolasak eta hauen inguruko hizkuntza edukiak eremu ez-formalari dagozkio, landu denon artean adostutako ikasgai eta tarteetan. Lanketa hori mailakatu eta programa osoa egin, beste ikasgaietako edukiekin egiten den bezala. Jolasgaraietan egingo dugun aplikazioak berak erakutsiko digu saiakera egokia eta arrakastatsua den edo aldaketak egin behar diren.</p>	
<p>Hizkera mota horretako beharrez, berrikuntzez, materialez... adi egongo den arduraduna ezarri.</p>	<p>Erne egon eta adi, modaren eraginez-edo, ikasleengan errotzen eta hedatzen diren jolasekin. Erantzukizuna izan identifikatzeko, gazteleraz ari badira euskarara itzultzeko eta horretan ikasleak trebatzeko, horretarako behar diren lan saioak antolatuz.</p>	

-Bestalde, eskola orduz kanpoko eskaintza aukeratu dugu honetan ere behin egiten dugun inbertsio ezin izan daitekeelako betirako gorde. Garaiak aldatzen diren moduan, gure ikasleen gus-tuak ere kanbiatuz doaz. Horregatik, etengabe azter-tu beharra dago egiten dugun inbertsioak gaztetto-ak asebetetzen ote dituen. Eskola orduetan zein orduz kanpoko jarduerak ez dira programa betetze-ko asmo hutsak eta jarduera gutxiak lortzen dute hiz-kuntza erabilera bermatzea modu zabal batean: erre-gistro desberdinak, hiztegia, euskalkia...

EREMU INSTITUZIONALA	EREMU CURRICULARRA	EREMU EZ-CURRICULARRA
<p>Escola-orduz kanpoko eremu zabala euskararen normalizazioaren ikuspegitik antolatzeko eta baliabidez hornitzeko erabakia.</p>	<p>Batzordea osatu (ikastola bakoitzeko errealtatearen arabera) eta eskola-orduz kanpoko eremua aztertu: gabeziak eta indar guneak.</p>	
<p>Ikasturtero, ikasleen interesetan oinarrituta, eskaintza osatzeko erabakia hartu.</p>	<p>Honetan oinarrituta, DBHko hautazko arloetan egin dezakegun eskaintzarako baliagarri gertatuko zaigu zer lantzea gustatuko litzaieken.</p> <p>Adibidez, antzerkiaren eskaintzak euskara intentsitate gehiagoz bizitzeko balio duela egiaztatuta daukagu, haur eta gazteak protagonista direlako uneoro. Talde txikietako harreman sareak birmoldatu egiten dira, rolak aldatuz eta parte-hartzaileen bestealako trebeziak azaleratuz. Egoera askotariakoak sor daitezke jolas antzeztutik hasi eta zuzeneko ekitaldira bidean. Beste ekintza arrakastatsua irratia da. Ekintza honek oso ongi funtzionatzen du lurralde erdaldunetan. Jarduera honek ez du soilik parte-hartzaile direnentzat balio, adin guztietako umeek badute euskararako beste esparru bat irabazia, etxetik ere jarraipena egin baitezakete. Gainera, eremu curricularrean bideratzen den hainbat lan erakusteko beste modu bat da, ahozko tasuna landu bidenabar.</p>	
<p>Begiraleak duten zeregin pedagogiko zein linguistikoarekiko trebatu egin behar dira. Gazteentzat begiraleak askotan bihurtzen dira erreferente eta erreferenteak duen garrantziaz jabetzea eta rolet dituzten ikuspuntu desberdian ezagutzeta du helburu.</p>	<p>Trebakuntza bertakoekin nahiz kanpoko eragileen laguntzarekin egin daiteke. Baina ez da nahikoa hori eskaintzearekin, etengabeko koordinazio bideratu beharko da eta adostu batzordean esparru horri dagokion jarduera bakoitzak berezkoak dituen hizkuntz helburuak zein diren eta horien jarraipena eta lanketa nola egin beharko den.</p> <p>Maila honetan erreferente bihurtzen dugun pertsonaren trebakuntza ez ezik, inportantea da bestelako ezaugarriak ere kontuan hartzea: talde dinamiketarako dagoen abilezia, erraterako.</p> <p>Hezitzailea da euskararen erabilera sustatzeko oinarritzko elementua, beraz, berebiziko garrantzia duite parte-hartzaile eta hezitzailearen arteko harremanak. Hezitzaileak erreferentzia positiboa, erakargarria, izan behar du ikaslearentzat. Hau gertatzen denean, onarpenarekin batera leku egokia aitortuko zaio hezitzaileari taldean, ondorioz, hizkuntza erabilera ere bat etorriko da.</p>	
<p>Batzordeak begiraleekin batera jarduera bakoitzerako hizkuntz helburuak adostu beharko ditu talde bakoitzarekin lantzeko, kontuan hartuta jartzen den helburua eta helburuak eskatzen duen ahaleginaren artean ez dagoela gehiegizko saltorik.</p>	<p>Helburuen lorpenerako beharrezkoak diren elementuak eta tresnak identifikatu ez ezik, prestatu ere egin beharko dira: erregistro desberdina, hizkera errepertorio zehatza, hiztegi teknikoak, hitanoaren erabilera, euskalkiarena...</p> <p>Honetan gela barruko ahaleginak ere lagun dezake. Alegia, gorputz hezkuntzako edo plastikako orduetan hiztegi teknikoak eta erregistro zehatza landu daiteke eta hori bera erabili gelatik kanpoko jardueretan.</p> <p>Helburuen lortu maila astero behatu beharko da. Hiruhileko jarraipena egin beharko da antolatzen diren ekintzen hizkuntza jokabideaz hausarketa egiteko. Horretarako, formulatu ditugun helburuen baitako erabilera neurtzeko tresna egokiak erabili beharko dira besteak beste.</p>	

**Hizkuntz kompetentzia garatzeko gune izateaz gainera, komunikazio ohiturak finkatzeko gunea ere izan beharko du.**



Badakigu, jakin, eskolak bakarrik nekez lor dezakeela hau guztia iraultzea. "Ikaskuntzak, ikasbide eta ikastetxeak ez du bere lanaren jarraipen bermerik segurtatzen. Eskolatik bakarrik ezin espero liteke konponbiderik. Etxe-auzo-bizigiro multzo korapilotsu horren falta du eskolak. Hizkuntza ezin du eskolak bere kabuz eta bere eragin hutsez biziberritu" (Fishman). Alabaina, halaxe izanagatik ere, eskolak baditu beste inork nekez ordezza ditzakeen egitekoak, eta egiteko horiek, bestalde, emaitza ikusgarriagoak izango dituzte baldin eta gizartean jarraibiderik badute. Eskola bakoitza euskararen arnagune bihurtzen badugu, bertako esparru guztietan komunikazio hizkuntza nagusia euskara izatea erdiesten badugu, komunitate horretako banakoen hizkuntz portaera normalizatu horrek gizartean ere bere luzapena izan dezake, hiztun euskaldunen komunikazio sarean sartzeko aukerarik izanez gero behintzat. Eskola esparrua beraz, **hizkuntz konpetentzia garatzeko gune izateaz gainera, komunikazio ohiturak finkatzeko gunea ere izan beharko du.**■

## BIBLIOGRAFIA

- Ikastolen Elkartea: *IX. jardunaldi pedagogikoak: Euskararen erabilera*, Donostia, 2002.
- Ikastolen Elkartea: *XI. Jardunaldi pedagogikoak: Ahozotasuna*\_Donostia, 2004.
- Ikastolen Elkartea: *Ikastolen hizkuntz proiektua definitzeko oinarriak*, Donostia, 2000)
- Bat soziolinguistika aldizkaria: *Hizkuntza normalkuntza hizkuntza erreperitorioaren bidetik*, 42. zka, 2002.
- Ttakun Elkartea: *Hezitzaileek asko egin dezakete*, Lasarte, 2004.